

# 10/14

*irizpena*

Mendekotasunen  
Legaren Aurreproiektuari buruzkoa

Bilbon, 2014ko urriaren 3an



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

# 10/14 IRIZPENA

## Mendekotasunen Legearen Aurreproiektuari buruzkoa

Bilbon, 2014ko urriaren 3an

### I.- AURREKARIAK

2014ko irailaren 1ean Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Osasun Sailaren idazkia sartu zen eta mendekotasunei buruzko lege-aurreproiektuaren txostena eskatzen zuen, 8/2012 Legeak, maiatzaren 17koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, 3.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

*“Arauaren xedea osasun-sustapenaren, prebentzioaren, eskaintza-murrizketaren, laguntzaren, gizarteratzearen, prestakuntzaren nahiz ikerketaren eta erakunde-antolaketaren arloetan mendekotasunen eremuan garatu behar diren neurriak eta ekintzak arautzea da. Era berean, Legeak substantzien kontsumoak edo portaerazko mendekotasunek eragiten dituzten kalteengatik hirugarren pertsoneri babesteko jarduerak erregulatzea aurrez ikusten du”.*

Horren kopia berehala bidali zitzaion Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei, beren proposamenak egin eta iritzia emateko, baita lan-batzorde egokian lantzeko ere, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari dagokion Funtzionamendu Araudiak xedatutakoarekin bat.

Ekonomia Garapenerako Batzordea 2014ko irailaren 24an bildu zen, irizpen-aurreproiektuaren lehenengo proposamena eztabaidatzeko xedez. Bilera berria egin zen irailaren 30ean. Horretan onartu zen Irizpen Proiektua eta, ondoren, 2014ko urriaren 3an Euskadiko EGABren Osoko Bilkurak lantzeko aurkeztu zen eta aho batez onartu zuen.

### II.- EDUKIA

Dekretu Proiektuaren testuak zioen azalpena, zazpi Tituluetan banatuta 96 artikulua, Xedapen Indargabetzaile bakarra eta bi Azken Xedapen ditu.

#### **ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.**

1. artikulua. Legearen xedea eta aplikazio-eremua.
2. artikulua. Eremu materiala.
3. artikulua. Printzipio gidariak.
4. artikulua. Mendekotasunak prebenitzeko eta arreta eskaintzeko ereduaren oinarrizko funtsak.
5. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak.
6. artikulua. Definizioak.
7. artikulua. Helburu orokorrak.

**LEHENENGO TITULUA. OSASUNA SUSTATU ETA MENDEKOTASUNAK PREBENITZEA.**

8. artikulua. Osasuna sustatzearen eta mendekotasuna prebenitzearen izaera eta hedapena.

9. artikulua. Osasunerako heziketa.

**Lehenengo Kapituluua. Osasuna sustatzea.**

10. artikulua. Mendekotasunen eremuan osasuna sustatzea.

11. artikulua. Mendekotasunen eremuan osasuna sustatzeko helburuak.

12. artikulua. Mendekotasunen eremuan osasuna sustatzeko neurriak.

**Bigarren Kapituluua. Mendekotasunak prebenitzea.**

13. artikulua. Mendekotasunak prebenitzea.

14. artikulua. Mendekotasuna prebenitzearen eremuan helburuak.

15. artikulua. Familiaren eremuan prebentzioa.

16. artikulua. Komunitatearen eremuan prebentzioa.

17. artikulua. Hezkuntzaren eremuan prebentzioa.

18. artikulua. Arrisku handia duten adin txikikoen eta gazteen eremuan prebentzioa.

19. artikulua. Lan-ingurunean prebentzioa.

20. artikulua. Lan-eremuan prebentzioaren neurriak.

21. artikulua. Gizarte-komunikabideen eremuan prebentzioa.

22. artikulua. Kirolaren, astialdiaren eta aisialdia erabiltzearen eremuan prebentzioa.

23. artikulua. Ingurumenaren eta hirigintzaren eremuan prebentzioa.

24. artikulua. Legearen, zigorren eta segurtasunaren eremuetan prebentzioa.

**BIGARREN TITULUA. ESKAINTZA MURRIZTEA.**

25. artikulua. Poliziaren jarduera.

26. artikulua. Legez kanpoko publizitatearen arloan jarduerak.

**Lehenengo Kapituluua. Edari alkoholikoen publizitate, sustapen, hornidura, salmenta eta kontsumoarekiko mugei buruzkoa.**

*1. Atala. Edari alkoholikoen kontsumoaren publizitate eta sustapenarekiko mugak.*

27. artikulua. Edari alkoholikoen arloan publizitatea.

28. artikulua. Edari alkoholikoak sustatzea.

29. artikulua. Edari alkoholikoen arloan kanpoko eta barneko publizitatea.

30. artikulua. Edari alkoholikoen publizitatea komunikabideetan.

31. artikulua. Edari alkoholikoen arloan publizitatearen beste modu batzuk.

*2. Atala. Edari alkoholikoen hornidura eta salmentarekiko mugak*

32. artikulua. Edari alkoholikoen hornidura eta salmenta.

33. artikulua. Edari alkoholikoak zerbitzatzen diren establezimenduetan sarrera eta egonaldia mugatzea.

*3. Atala. Edari alkoholikoaren kontsumoarekiko mugak.*

34. artikulua. Edari alkoholikoak kontsumitzea.

**Bigarren Kapituluua. Tabakoaren publizitate, sustapen, hornidura, salmenta eta kontsumoarekiko mugei buruzkoa.**

*1. Atala. Tabakoaren kontsumoaren publizitate eta sustapenarekiko mugak.*

35. artikulua. Tabakoaren arloan publizitatea.

36. artikulua. Tabakoaren arloan sustapena.

37. artikulua. Tabakoaren publizitatea komunikabideetan.

38. artikulua. Tabakoaren arloan publizitatearen beste modu batzuk.

*2. Atala. Tabakoaren hornidura eta salmentarekiko mugak.*

39. artikulua. Tabakoaren produktuen hornidura eta salmenta.

40. artikulua. Makina automatikoen bitartez tabako-produktuen hornidura eta salmentarekiko mugak.

*3. Atala. Hirugarrenei kaltetzen dien neurrian tabakoaren kontsumoarekiko mugak.*

41. artikulua. Tabakoa kontsumitzea.

42. artikulua. Tabakoa kontsumitzearen mugekiko salbuespenak.

**Hirugarren Kapitulua. Nikotina aska dezaketen gailuen publizitate, sustapen, hornidura, salmenta eta kontsumoarekiko mugei buruzkoa**

- 43. artikulua. Publizitatea.
- 44. artikulua. Sustapena.
- 45. artikulua. Publizitatea komunikabideetan.
- 46. artikulua. Publizitatearen beste modu batzuk.
- 47. artikulua. Hornidura eta salmenta.
- 48. artikulua. Kontsumoa.

**Laugarren Kapitulua. Beste substantzia batzuekiko mugak**

- 49. artikulua. Sendagai estupefazianteak eta psikotropikoak.
- 50. artikulua. Beste substantzia batzuk.

**Bosgarren Kapitulua. Portaerazko mendekotasunak sor ditzaketen jokabideekin zerikusia duten zerbitzu eta establezimenduen gaineko mugak**

- 51. artikulua. Jokoaren jardueraren gaineko mugak
- 52. artikulua. Teknologia berrien gehiegizko erabilera sor eta susta dezaketen bitartekoen eskaintzaren gaineko mugak.

**HIRUGARREN TITULUA. LAGUNTZA SANITARIOA ETA SOZIOSANITARIOA.**

- 53. artikulua. Laguntza sanitarioaren eta soziosanitarioaren printzipio orokorrak.
- 54. artikulua. Laguntza eskaintzeko irizpideak.
- 55. artikulua. Zerbitzu sanitarioak eta soziosanitarioak.
- 56. artikulua. Arreta talde bereziei.
- 57. artikulua. Beste administrazio eta erakunde batzuekin kooperazioa eta lankidetzeta.

**LAUGARREN TITULUA. GIZARTERATZEA.**

- 58. artikulua. Arreta-sistema publikoen printzipio orokorrak.
- 59. artikulua. Mendekotasunak dituzten edo izatearen arriskua duten pertsonen arreta eskaintzeko orduan gizarte-zerbitzuen eremuan jarduera-area eta -irizpide aplikagarriak.
- 60. artikulua. Mendekotasunak dituzten edo izatearen arriskua duten pertsonen arreta eskaintzeko orduan diru-sarreraren bermearen eta aktibazioaren eremuan jarduera-area eta -irizpide aplikagarriak.

**BOSGARREN TITULUA. EZAGUTZA GARATU ETA KUDEATZEA.**

- 61. artikulua. Informazioa.
- 62. artikulua. Prestakuntza.
- 63. artikulua. Ikerketa.
- 64. artikulua. Ebaluazioa.
- 65. artikulua. Mendekotasunaren arloan estimazioak.

**SEIGARREN TITULUA. ERAKUNDE-ANTOLAKETA, PLANGINTZA, GIZARTE-EKIMENA, KOORDINAZIOA ETA PARTAIDETZA.**

**Lehenengo Kapitulua. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen artean antolamendua eta koordinazioa.**

**1. Atala. Euskal herri-administrazioen artean aginpideen banaketa.**

- 66. artikulua. Euskal herri-administrazioen aginpideak.
- 67. artikulua. Eusko Jaurlaritzaren aginpideak.
- 68. artikulua. Foru Aldundien aginpideak.
- 69. artikulua. Udalen aginpideak.
- 70. artikulua. Aurrekontu-konpromisoak.

2. Atala. Plangintza.

71. artikulua.- Mendekotasunei buruzko Euskadiko Plana.

72. artikulua.- Foruko eta tokiko planak.

**Bigarren Kapitulua. Mendekotasunen arloan koordinazio, zuzendaritza, kontsulta, aholkularitza eta gizarte-partaidetzaren organoak.**

73. artikulua. Mendekotasunei buruzko Erakundeen arteko Koordinazio Batzordea.

74. artikulua. Babes- eta laguntza-organoa.

75. artikulua. Mendekotasunei buruzko Euskal Kontseilua

76. artikulua. Mendekotasunen arloan beste kontsulta, aholkularitza eta gizarte-partaidetzaren organo batzuk.

77. artikulua. Ordezkaritza orekatua.

**Hirugarren Kapitulua. Gizarte-ekimena.**

78. artikulua. Pertsona eta erakunde pribatuak.

79. artikulua. Irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

80. artikulua. Hitzarmenak sinatu eta lankidetzan jarduteko baldintzak.

81. artikulua. Osasun-zerbitzuak eskaintzeko hitzarmenak.

82. artikulua. Zentro, zerbitzu eta establezimendu pribatuen jarduera-baldintzak.

83. artikulua. Boluntarioak.

**HAZPIGARREN TITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.**

84. artikulua. Arau-hausteen eta zigorren araubidea.

85. artikulua. Arau-hausteen motak.

86. artikulua. Berrerortzea eta errepikatzea.

87. artikulua. Erantzukizuna.

88. artikulua. Kautelazko neurriak.

89. artikulua. Zigorrak.

90. artikulua. Zigorren mailaketa.

91. artikulua. Zigorren zenbatekoa.

92. artikulua. Zigorrak ordezkatzeta.

93. artikulua. Preskripzioen araubidea.

94. artikulua. Ikuskatu eta zigortzeko aginpideak.

95. artikulua. Zigortzeko prozedura.

96. artikulua. Euste-harreman bereziak.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.**

**Lehenengo azken xedapena.**

**Bigarren azken xedapena.**

**Zioen azalpena**

Zioen Azalpena mendekotasunak gizarte-fenomeno oso zabal eta konplexuak direla aipatuz hasten da, arrazoieta eta garapen-prozesuan elkartzen diren elementuek elkarrekintzan baitihardute eta nahasiak eremu eta arlo asko egon baitaitezke. Gainera, aldakorrek dira eta denboran ikuspegi aldakorrek izan ditzakete, honakoan arabera: gizarte-sentsibilitatea, substantzia eta jokabide berriak, eredu eta kontsumo-testuinguru berriak, nahasitako biztanleria eta gizarte-ondorioak.

Droga-kontsumo eta pertsonen jokabide guztiak berez ez dira problematikoak edo kaltegarriak. Jokabide batzuen efektuak, ordea, negatiboak dira; are gehiago, negagarriak eta suntsitzaileak ere. Mendekotasuna sortzen dute eta pertsona kontsumitzaileen eta beren gizaki hurbilenean nahiz, orokorrean, gizartearen osasunari kalte larriak eragiten dizkiote.

Araudi-aurrekariari dagokionez, arloan lehenengo legea 15/1988 Legea, azaroaren 11koa, droga-mendekotasunen eremuan prebentzio, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa, izan zen. Hamar urte geroago 18/1998 Legea, ekainaren 25koa, droga-mendekotasunen arloan prebentzio, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa, onartu zen.

Berriagoa da 1/2011 Legea, otsailaren 3koa, droga-mendekotasunen arloan prebentzio, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa. Ekainaren 25eko 18/1998 Legea tabakoarekin zerikusia zuten gaitan berri zuten, baita Osasunaren Munduko Erakundeak, Europako Batasunak eta Estatuko oinarrizko legeriak osasun publikoa babesteko orduan planteatutako betekizunekiko moldatu ere.

Oraingo lege berriak diziplina aniztetik eta modu integralean landu nahi ditu mendekotasunak. Ildo horri eutsiz, mendekotasunetan eragiten duten eremu eta arlo guztietan osasunerako heziketa azpimarratzen du.

Aipatutakoaren arabera, idazte-prozesuan nazioarteko aipamenak, oso bereziki OMEk eta EEk egindakoak (besteak beste, 2013-2020rako drogen kontra borrokatzeko Europako Batasunaren Estrategia eta Eskualde Europarraren OMEk gauzaturako 2012-2020rako alkoholaren erabilera kaltegarria murrizteko Europako Ekintza Plana), kontuan hartu dira. Halaber, 2014/40/EE Zuzentarau berriari erreparatu zaio. Horrek tabakoaren produktua eta zerikusia dutenak fabrikatu, aurkeztu eta saltzeko orduan estatu kideen legezko eta araubidezko xedapenak nahiz administrazio-xedapenak hurbiltzen ditu eta 2001/37/EE Zuzentzarua indargabetzen du.

### **Xedapen-zatia**

***Atariko Tituluak*** (1.etik 7. artikulura) ***Xedapen Orokorrak*** zehazten ditu.

Legearen xedearekin bat, erregulazioari ikuspegi integrala eta orokorra eskaini nahi zaio eta esku hartzeko arlo nagusiak identifikatzen ditu: osasuna sustatzea, mendekotasunak prebenitzea, eskaintza murriztea, laguntza eta gizarteratzea, ezagutza garatu eta kudeatzea, baita arloetan jasotzen diren neurriak gauzatzeko erakunde-antolaketa erregulatzea ere.

Legearen eremu materialak mendekotasuna sortzeko gaitasuna duten substantziak (alkohola, tabakoa, kanabisaren deribatuak, beste opiazeo batzuk, psikoestimulatuzaileak, halozinogenoak, sendagai psikotropikoak, anfetaminaren deribatuak eta beste substantzia sintetikoak nahiz fabrikazio kimikotik datozenak) aurrez ikusten ditu. Nolanahi ere, batzuen kontsumoa (hala nola alkohol eta tabakoarena) gure ingurunean oso errotuta dago. Baina, lege berriak, gainera, portaerazko mendekotasunak edo substantziarik gabeko mendekotasunak (joko patologikoa, teknologia digitalak erabiltzean gehiegizko jokabideak) eransten ditu.

Berrikuntza bezala, legeak nikotina aska dezaketen gailuak arautzen ditu. Nikotina duen lurruna kontsumitzeko produktuak, edozein osagai edo kargatzeko ontziak dira.

Horrez gain, mendekotasun-egoerari aurreratzeko xedez, mendekotasunen arrisku-faktore aitzindariak, substantzien kontsumo problematikoak eta portaerazko mendekotasunak sortzeko arriskua duten gehiegizko jokabideak aurrez ikusten ditu.

Azkenik, hasieran ohikoak diren beste jokabide batzuk (besteak beste, erosketak, elikadura konpultsioa edo proportzioz kanpoko ariketa fisikoa edo lan-jarduera) etorkizunean problematikoak izan daitezke, baita mendekotasunaren aitzindariak ere. Beraz, kautelazko printzipioa erabilita, legeak osasuna sustatu eta prebenitzeko neurriak gehiegizko beste jokabide batzuetara hedatzea xedatzen du, nahiz eta orain portaerazko mendekotasunen kontzeptuen barruan ez sartu.

Halaber, berria da eskubideak onartzea eta eginkizunak nahiz betekizunak zehaztea, ez bakarrik gizarte- eta osasun-zerbitzuetako erabiltzaileak diren neurrian, baita askatasun pertsonala onartzeko ere.

***Lehenengo Titulua*** (8.etik 24. artikulura) bi kapitulutan banatzen da eta ***osasuna sustatzeari*** (lehenengo kapitulua) ***nahiz mendekotasuna prebenitzeari*** (bigarren kapitulua) buruzkoa da.

Neurriak mendekotasunei eta gehiegizko beste jokabide batzuei dagozkie, gaur egun oraindik zientziak portaerazko mendekotasuntzat ez jo arren.

Askatasun pertsonalak errespetatuta, prebentzio-ereduak kontsumoaren kulturaren jokabide-aldaketa sortaraztera eta bizimodu osasuntsuak zehaztera bideratuko dira. Horretarako, erabilera eta jokabide desegokien aurrean pertsonen ardura handiagoa izango dute.

Osasuna sustatu eta mendekotasunak prebenitzeko oinarrizko jarduera-estrategia osasunerako heziketa da. Osasun publikoaren ikuspegitik, bizimodu autonomo, solidario eta aske bezala ohitura osasuntsuak eta osasunaren kulturaren barruan daudenak lortzera bideratuta dago. Osasunerako heziketa, batez ere, pertsonen garapenari dagozkion etapa goiztiarrenetan, ondoren bizi-ohitura osasuntsuei eusteko baloreak finkatzen baitira. Osasunerako heziketan behar bezalako orientazio arrakastatsua lortzeko, eskola-sistema nahasteaz gain, komunikabideek eta komunitate guztiak ere beren eragina izan behar dute.

Prebentzioaren arloan substantzien eskea edo arrisku-jokabideak nahiz gehiegizkoak murriztera bideratutako neurriak jasotzen dira. Argi eta garbi bereizten dira eskaintza kontrolatu eta murrizteko neurrietatik. Azkenekoak bigarren Tituluan lantzen dira eta orain arteko testuan nahasturik agertzen ziren.

Prebentziorako kapituluak, izan daitezkeen eremu guztietan, biztanleentzako neurri orokorrak xedatzen ditu, beste batzuk, berriz, arrisku-egoeran dauden pertsona edo taldeentzat, baita ahulagoak direnentzat ere dira eta, gainera, portaerazkoak ez diren mendekotasunerako neurri bereziak daude. Prebentziorako jardueratan lehentasunezkoak dira familiaren, komunitatearen eta hezkuntzaren eremuak eta elkarren artean koordinatu beharko dute, esku hartzen duten gizarte-eragile guztiak (eskola, familia, enpresak, elkarteak, etab.) nahasteko.

Familia-eremuan prebentziora dagokionez (15. artikulua), gurasotasunaren printzipio positiboa azpimarra daiteke. Printzipio honen arabera, bai amak, bai aitak, seme-alabekiko guraso-ahalezia positiboak garatu behar dituzte. Halaber, horien portaera-mugak finkatzeko baloreetan hezi behar diete. Lotura afektiboaren baloreak bultzatu behar dira, ingurune egituratuak sendotzearekin, eskola-ikasketekiko estimulazio eta laguntzekin eta seme-alaben balorea onartzearekin batera. Nolanahi ere, eragile eraginkor, lehiakor eta gaitu bezala beren pertzepzioa sendotu behar da.

Komunitatearen eremuari dagokionez (16. kapitulua), udalen zeregina nabarmentzen da, kide diren pertsona eta komunitateekiko hurbilak baitira.

Hezkuntzaren eremuari buruz (17. kapitulua), bere lehentasunezko balorea ondorengoan datza: hezkuntza-sistemak pertsonaren gaitasunak eraikitzeke orduan duen zeregin nagusian, nagusiki, garapenaren etaparik goiztiarrenetan.

Arrisku-egoera altuan dauden adin txikiko eta gazteekiko prebentziora dagokionez (18. artikulua), honakoak azpimarratzen dira: gizartearen nahiz hezkuntzan esku-hartze eta programa bereziak, aholkatzeke eta laguntzeko, eta adin txikiko eta gazte arau-hausleentzat, gurasoekin indarkeriaren egoeran daudenentzat edo beren familietatik bananduak daudenentzat moldatutako esku-hartzeak.

19. artikulutik 25. artikulura bitartekoak lan-eremuan; gizarte-komunikabideen arloan; kirolaren, aisialdiaren eta astialdiaren eremuan; ingurumenaren eta hirigintzaren arloan eta legearen, zigorren eta segurtasunaren eremuetan prebenitzeari buruzkoak dira.

**“Eskaintza Murriztea” Bigarren Titulua** (25.etik 52. artikulura) 5 Kapitulutuan banatzen da:

- Lehenengoa. Edari alkoholikoen publizitate, sustapen, hornidura, salmenta eta kontsumoarekiko mugei buruzkoa.
- Bigarrena. Tabakoaren publizitate, sustapen, hornidura, salmenta eta kontsumoarekiko mugei buruzkoa.
- Hirugarrena. Nikotina aska dezaketen gailuen publizitate, sustapen, hornidura, salmenta eta kontsumoarekiko mugei buruzkoa.
- Laugarrena. Beste substantzia batzuekiko mugak.
- Bosgarrena. Portaerazko mendekotasunak sor ditzaketen jokabideekin zerikusia duten zerbitzu eta establezimenduekiko mugak.

Egitura substantzien arabera sailkatua dago eta bakoitzaren barruan beren inguruan sortutako jarduera arautzen da, hau da, publizitatea, salmenta, hornidura eta kontsumoa. Gero, portaerazko mendekotasunei dagokienez, eskaintza kontrolatzeko arauak zehazten dira.

Kontrol-neurriak legezko drogen gainean xedatzen dira, legez kanpokoak zigor- edo administrazio-araudia baitute eta, beraz, Autonomia Erkidego honen aginpide-eremutik kanpo gelditzen dira.



Lehenik eta behin, edari alkoholikoen mugak arautzen dira. Gazteek alkohola kontsumitzeko dituzten erraztasunak murriztu behar dira eta gaur egun arte indarrean dagoen araubidea baino mugatzaileagoa egituratzen du.

Tabakoari dagokionez, indarrekoekin alderatzen baditugu, neurriek ere gehiago mugatzen dute, erretzen ez duten pertsonen osasuna babesteko, eskubidea baitute.

Nikotina aska dezaketen gailuei dagokionez, gailuak nikotina aska dezakeenean, legeak bere kontrol-araubidea tabakoarenarekin parekatzen du eta ondorioak berdinak dira.

Portaerazko mendekotasunei buruz, ez da zigor-neurririk zehaztu, eskaintza murrizteko ekintzak baizik. Horiek zorizko jokoak eta teknologia berriak arduraz erabiltzea dute helburu eta hori bultzatzeko neurriak hartzen dira. Ludopatien kasuan, sektoreko araudiari erreparatu behar zaio eta jokoan (presentziazkoan nahiz on-line egindakoan) erantzukizunaren ikuspuntua sartzera bideratutako kontrol-neurriak hartzen dira. Teknologia digitalei dagokionez, kontrol-neurriak eskaintzan neurrizko baloreak sartzera bideratuak daude. Hain zuzen ere, fenomeno honen ondorioak kriminalizatu nahi dira, gizarteari kontzientziatu eta mentalizatu nahi zaio, jarreraz aldatzeko.

**“Arreta sanitarioa eta soziosanitarioa” Hirugarren Tituluak** (53.etik 57. artikulura) mendekotasunak dituzten pertsonen edo arriskua izan dezaketen arreta arautzen du. Erabiltzaileei arreta osoa eskaini behar zaie, beren beharretan, normalizazioan eta eraginkortasunez gizarteratzean oinarrituta.

55. artikulua mendekotasunak dituzten edo izan ditzaketen pertsonen arreta eskaintzeko zerbitzu eta ekipamenduak osasun sanitario eta soziosanitario publikoaren bitartekoetan (hala nola lehen mailako arreta, osasun mentala, ospitale-arreta, larrialdietan laguntza, arreta soziosanitarioa eta lehen mailako nahiz bigarren mailako gizarte-laguntza) integratzeari buruz hitz egiten du.

**“Gizarteratzea” Laugarren Titulua** (58. artikulutik 60. artikulura) berez eta arreta sanitario eta soziosanitariotik bananduta agertzen da, halakoetan jarduteko beste sistema publiko bat, berariazko jarduera-printzipioak dituen, erabiltzen baita. Gizarteratzea komunitatearen testuinguruan kokatuta dago eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari eta Diru Sarrerak nahiz Gizarteratzea Bermatzeko Euskal Sistemari oinarritzen da. Lehena lehenengo edota bigarren mailako arretaren gizarte-zerbitzuen bitartez eskaintzen da eta bigarrenarekin oinarritzeko behar ekonomikoei eta gizarteratzeko nahiz lan-merkatuan sartzeko beharrei erantzuten zaie.

**“Ezagutza garatu eta kudeatzea” Bosgarren Tituluak** (61. artikulutik 65. artikulura) izaera propioa du eta, indarreko araudiaren aldean, prebentziotik bereizi da.

Ikerketa, informazioa eta ebaluazioa zeharkako jarduerak dira. Osasun, gizarte, hezkuntza eta lanaren administrazioak mendekotasunen arloan informazio-lanak garatzea aurrez ikusia dago. Edozein pertsonarentzat oinarritzeko prestakuntza-jarduerak, baita espezializatuak ere egituratzen dira, beren jarduera profesionalak mendekotasunekin zerikusia badu. Ikerketa mendekotasunen fenomeno konplexua eraginkortasunez lantzeko ezinbesteko tresna modura ikusten da. Xede horrez, bultzatzeko neurriak zehazten dira eta aditu desberdinei arloan azterlanak garatzeko erraztasunak ematen zaizkie. Gainera, Mendekotasunei buruzko Behatokia arautzen da informazioaren sistema zentralizatu bezala.

Azkenik, mendekotasunen arloan programa publikoak ebaluatzea eta eremuan bere lanarekin nabarmendu diren erakundeak edo pertsonak jendaurrean goresteko ohorezko sariak edo beste bereizmen batzuk sortzea aurrez ikusten dira.

**Seigarren Tituluak** (66. artikulutik 83. artikulura) **erakunde-antolaketa, koordinazioa, plangintza eta gizarte-ekimena** arautzen ditu. Hala, legeak arautzen duen edozein arlo estrategikotan (hau da, osasuna sustatzea, prebenitzea, laguntza eta gizarteratzea, prestakuntza eta ikerketa mendekotasunen arloan) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazio bakoitzari atxikitako aginpideak zehazten ditu, hainbat herri-administrazioaren artean bikoiztasunak eta jarduera gainjarriak saihesteko.

Herri-administrazio aginpidedunen plangintza-tresnak, beren izaera estrategikoarekin, legeak adierazten dituen xedeak lortzeko funtsezkoak dira. Euskadiko Mendekotasunei buruzko Plana plan gidari bezala egituratzen da eta, ondorioz, modu koordinatuan eta orokorrean, herri-administrazioek eta erakunde pribatuek egin behar dituzten programak eta jarduerak zehaztuko ditu.



Erakunde-bitartekoei dagokienez, honakoak sortzen dira: Mendekotasunei buruzko Erakundeen Arteko Koordinazio Batzordea, Eusko Jaurlaritzak atxikiak dituen funtzioetan laguntza-organoa; eta Mendekotasunei buruzko Euskal Kontseilua, kontsulta- eta aholkularitza-organoa. Azkenekoan droga-kontsumitzaileen eta substantziarik gabeko mendekotasunak dituztenen elkartetako, Euskadiko Osasun Zerbitzuko eta Euskadin argitaratzen diren gizarte-komunikabideetako ordezkariak sartu dira. Sailen Arteko Batzordea lehen existitzen zen, baina Erakundeen Arteko Koordinazio Batzordearen alde desagertu da, Euskadiko herri-administrazio guztiak elkartzen baititu eta beren jardueren koordinazio, lankidetzeta eta partaidetzarako organo gorena izango da. Bestalde, foruko eta tokiko administrazioek koordinazio, aholkularitza eta gizarte-partaidetzaren organoak sor ditzakete.

Azkenik, gizarte-ekimenarekin pertsona eta erakunde pribatuek arloan egindako lan garrantzitsua aintzatesten da. Horrez gain, horiekin lankidetzan jarduteko baldintzak arautzen dira.

**Zazpigarren Tituluak** (84. artikulutik 96. artikulura) **arau-hausteak eta zigorrak** xedatzen ditu.

Zigor-neurriak substantzien gaineko jarduerari buruzkoak dira, portaerazko mendekotasunei dagokienez, Bigarren Tituluak eskaintza murrizteko neurriak xedatzen baititu.

Zigortzeko aginpidea duten organoei dagokienez, Gobernu Kontseiluaren, mendekotasunaren arloan sail eskudunaren barruan dagoen organoaren eta alkateen artean banatzen dira. Alkateek jada bazituzten zigortzeko aginpideak atxikiak, baina ondorengoak sartzen dira: tabakoaren eta nikotina aska dezaketen gailuen arloan arau-hauste arinengatik zigorrak, alkoholari buruzko arau-hauste arinen ildotik, halako arau-hausteen motak eraginkortasunez zuzentzeko tokiko eremua hurbilagoa delakoan.

Zigorrei dagokienez, isunak egiazko zenbatekoetara moldatu eta, beraz, murriztu dira arau-haustearen egiazko larritasunaren arabera. Arau-hauste arinak 600 eurora irits daitezke, larriak 10.000 eurora arte eta oso larriak 600.000 eurora iristeko aukera dute.

Gertaeren arduraduna adin txikikoa denean, amak, aitak, tutoreek, harreragileek eta legezko edo izatezko zaindarien baimendu ostean eta adin txikikoari entzun ondoren, isunaren zigor ekonomikoaren ordezkari berrezteko neurriak, legeak aurrez ikusten dituenak (hala nola komunitatearen onurarako lanak edo jarduerak egitea edo arau-haustea mendekotasunekin zerikusia duten prestakuntza- edo informazio-programetan sartzea), aplikatu diezazkiokete.

### III.- SARRERA: ALDERDI INTERESGARRIAK

#### **Araudi-esparrua**

Legearen Txosten Ekonomikoan aipatzen den bezala, Autonomia Estatutuak 18. artikuluan Autonomia Erkidegoari atxikitzen dizkio barneko osasunaren arloan legeak garatzea eta oinarritzko legeria gauzatzea.

8/1997 Legeak, ekainaren 26koak, Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, hainbat neurriren (prebentzioa, osasuna sustatzea eta banan-banako osasun-prestazioak) bitartez, Euskadiko Osasun Administrazioari dagokio osasun publikoaren babes orokorra bermatzea.

Txostenean eta Legearen Azalpen Memorian adierazten den bezala, Euskal Autonomia Erkidegorako arloan lehenengo araudi-esparrua 15/1988 Legeak, azaroaren 11koak, droga-mendekotasunaren arloan prebenitu, lagundu eta gizarteratzeari buruzkoak, mugatu zuen. Testua droga-mendekotasunen fenomeno orokorrean ulertzeko eta prebentzio-, laguntza- eta gizarteratze-politika publikoak zehazteko aurrerapen garrantzitsua izan zen. Hala, beste autonomia erkidego batzuek onartutako legeen erreferentzia izan zen.

Hamar urte geroago 18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, droga-mendekotasunen arloan prebentzio, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa, onartu zen. Indarrean sartu zenetik, Legea zati batean hirutan aldatu da:

- 1/1999 Legea, maiatzaren 18koa, droga-mendekotasunen prebentzio, laguntza eta gizarteratzeari buruzko Legea lehenengoz aldatzen duena. Legearen bi artikulua (Sailen arteko Batzordearen konposizioari eta Droga-mendekotasunen Kontseilu Aholkulariaren konposizioari buruzkoak) aldatu ziren.

- 7/2004 Legea, irailaren 30ekoa, bigarren aldaketari buruzkoa. Ordura arte Droga-mendekotasunari buruzko Plana hiru urterako bazen, bost urterako bihurtzen da.
- 1/2011 Legea, otsailaren 3koa, hirugarren aldaketari buruzkoa, abenduaren 30eko 42/2010 Oinarrizko Legeak planteatutako betekizunetara moldatzeko. Aipatu legeak 28/2005 Legea, abenduaren 26koa, tabakismoaren aurrean osasun-neurriei buruzkoa eta tabakoaren produktuei buruzko salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen zuena, aldatzen zuen. Aldi berean, Osasunaren Mundu Erakundearen eta Europako Batasuneko zuzentarauen gomendioak onartzen zituen.

Halaber, honako arauen bitartez araubidez garatu da:

- 302/1999 Dekretua, uztailaren 27koa, 18/1998 Legeak, ekainaren 25ekoak, droga-mendekotasunak prebenitu, lagundu eta gizarteratzeari buruzkoak, duen erakunde-tresna garatzen duena.
- 2001eko otsailaren 13ko Agindua, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, Droga-mendekotasunei buruzko Kontseilu Aholkulariaren Antolaketa eta Funtzionamenduaren Araudia onartzen duena.
- 2003ko maiatzaren 12ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Droga-mendekotasunei buruzko Kontseilu Aholkulariaren Antolaketa eta Funtzionamenduaren Araudia aldatzen duena.

Amaitzeko, EAE arloaren garapen legegilean aitzindaria izan zen eta gure gizartea "legez kanpoko drogekiko" mendekotasunen arazo larria errotik ateratzen saiatzeko abian jarri zen.

#### **Arau berria egitea justifikatzen duten aldaketak**

Legea indarrean sartu zenetik zenbait urte igaro ondoren, hainbat aldaketa izan da eta Erkidegoko legegileak bere gain hartu behar du. Horiek arau berria egitea justifikatzen dute eta, gainera, arloan dagoen legeria antolatzeke aukera aprobetxatu nahi da.

Kanabisaren kontsumoak beherantz egin duela baieztatu dezakegu, kontsumo-tasa handienak dituen Europako eskualde bat izaten jarraitu arren. Halaber, legez kanpoko substantzien (kokaina, anfetaminak, estasiak, etab.) kontsumoa jaitsi da.

Psikosendagaien (lasaigarriak, somniferoak eta depresioaren kontrakoak) kontsumoari dagokionez, bere kontsumoa mantentzen da.

Gure gizarteak onartzen dituen beste produktu batzuei buruz, hala nola tabakoa eta alkohola, tabakoaren guztizko kontsumoa murrizteko joera dago eta hori oso berri ona da, kontsumitzen hasteko adina mantendu arren. Alkoholari eta bere kontsumoari dagokionez, nahiz eta adierazle orokorren joera beherantzkoa izan, Euskadin fenomeno soziokulturala dela onartzen dugu. Hala, edari alkoholikoen eta, bereziki, ardoaren eta garagardoaren kontsumoa gure gizarteak onartua izan da eta oraindik "ohizkotzat" jotzen du. Ohitura oso errotuta dago, bai adin-tarte guztietan, baita gizarte-maila guztietan ere.

Horrez gain, nikotina askatzen duten gailuak agertu dira, horien ondorioak argiak izan gabe.

Aldi berean, lehen toxikomaniaren edo droga-mendekotasunaren, drogazaletasunaren ala droga-mendekotasuna duen pertsonaren kontzeptuak maiz erabiltzen baziren, gaur egun egokiagoa da, ez hain gutxiesgarria, baita pertsona kaltetuarentzat positiboagoa ere, orokorrean mendekotasunez hitz egitea. Berdin dio substantzieko mendekotasunak edo portaerazko mendekotasunak (zorizko jokoak, internet, oro har, eta bideo-jokoak, bereziki) izatea. Horrekin bat, mendekotasunaren edo mendekotasunak dituen pertsonaren terminoak erabiltzen dira.

Halaber, gaur egun mendekotasunen fenomenoaren kausazko ikuspegia gehiago lotzen da pertsonaren faktore biopsikosozialekin, hau da, bere nortasun-egoera bereziekin. Horiek kontsumorako eta jokabide problematikoetarako joera handiagoa dute. Izan ere, faktore biopsikosozialen artean arrisku-faktoreak agertzen dira, hau da, pertsonaren barneko edo kanpoko gorabehera eta ezaugarriak, elkarren artean elkarrekintzan dihardutenak eta potentziala biderkatu, baita ahulezia nahiz kontsumo eta jokabide arduragabeen aukerak areagotzeko sinergiak sortzen dituztenak. Horiek guztiak ez dira behar bezala garatzen eta mendekotasuna sortzen dute.

Aurrekoaren ondorioz, arau berria beharrezkoa da hurrengoak ahalbidetzeko:

1. Arloaren tratamendua modernizatzea eta moldatzea, zaletasunaren kontzeptua gaindituta, mendekotasunak ikuspegi zabalagoetik aurrez ikusteko.
2. Mendekotasunen fenomenoari dagokion kausazko ikuspuntua aldatzea. Gaur egun arrisku-faktoreetan (mendekotasuna garatzeko pertsonen barruko eta kanpoko ezaugarriak) oinarrituta dago eta zabaldu behar da babes-faktoreak (garatzeko aukerak murrizten dituzten faktoreak) kontuan hartuta.
3. Arloak modu sistematikoagoan eta antolatuagoan egituratu behar dira; ildo horri jarraiki, esku hartzeko arlo handiak (osasuna sustatzea, mendekotasunak prebenitzea, eskaintza murriztea, laguntza eta gizarteratzea, ezagutza garatu eta kudeatzea, baita arlo desberdinetan neurriak gauzatzeko erakunde-antolaketa arautzea ere) identifikatu behar dira.

#### **Indarreko legeriarekiko aurreproiektuaren berrikuntza nagusiak**

1. Bere eremu materialaren barruan substantziekin mendekotasunak, portaerazko mendekotasunak edo substantziarik gabeko mendekotasunak, mendekotasunen arrisku-faktore aitzindariak eta gehiegizko jokabideak (erosketa konpultsiboak, neurri kanpoko ariketa fisikoa edo lan-jarduera) aurrez ikusten dira. Azkenekoek portaerazko mendekotasunak sor ditzakete.
2. Esku hartzeko arlo handiak (osasuna sustatzea, mendekotasunak prebenitzea, eskaintza murriztea, laguntza eta gizarteratzea, ezagutza garatu eta kudeatzea, baita arlo desberdinetan neurriak gauzatzeko erakunde-antolaketa arautzea ere) identifikatzen ditu.
3. Nikotina aska dezaketen gailuak erregulatzea.
4. Eskubideak onartu eta betebeharrak zehazten dira, ez bakarrik gizarte- edo osasun-zerbitzuen erabiltzaile bezala, baita bere askatasun pertsonala kontuan hartuta ere.
5. Osasuna sustatu eta mendekotasunak prebenitzera (lehentasunezko jarduera-arloa mendekotasunen arloan) bideratutako tituluan, bereziki, honakoak azpimarratzen dira: osasunerako heziketa, batez ere, pertsonaren garapenari dagozkion etapa goiztiarretan, arriskuak eta kalteak murrizteari buruzko estrategia, eskubideak onartu eta betebeharrak zehaztea eta, azkenik, prebentzioari dagozkion eremu desberdinak.
6. Mendetasunei buruzko Erakundearen arteko Koordinazio Batzordea, Eusko Jaurlaritzari Laguntzeko Organoa eta Mendekotasunei buruzko Euskal Kontseilua sortzen dira.
7. Zigor-araubidearen diseinu berria erabiltzen da eta arau-hausteak sailkatzen dira.

## IV.- GOGOETAK

### IV.1 Gogoeta orokorrak

#### Arauaren balorazio orokorra

Orokorrean, lege-aurreproiektua ondo lotu eta egituratuta dago.

Osasuna sustatu eta mendekotasunen arloan prebenitzeari dagokionez, lege-aurreproiektua eragin duten irizpideekin bat gaude. Bereziki, ados azaltzen gara osasunerako heziketaren eremuan egindako jarduerekin eta ohitura osasuntsuak nahiz osasun-kultura (bizimodu autonomo, solidario eta askea) lortzerantz eman zaion ikuspegiarekin. Gainera, ekintzen tratamendu integrala, erakundeen eta sektoreen artekoa nahiz zeharkakoa azpimarratu nahi dugu.

Osasunaren kulturak gizabanakoaren hautatzeko askatasunarekin bizikidetu behar du, zigor-neurrietan oinarritutako ikuspegitik urrun. Azkenekoaren ondorio bakarra jokabideak kriminalizatzea da eta horrek marjinaltasuna eta desegitura soziala eta pertsonala dakartza. Gizarteratzeak izan behar du mendekotasunak dituzten edo horren arriskuan dauden pertsonetik helburua.

Osasunerako heziketak Euskadiko Hezkuntza Sistemaren erreferentzia bihurtu behar du. Ildo horri eutsiz, beste autonomia erkidego batzuetan gertatzen den bezala, ikastetxeetan Osakidetzako osasun-aditu publikoen zeregina sendotu behar da eta, horretarako, irakasle, maisu-maistra eta ikasleentzako programak planifikatzea nahitaezkoa da. Kontsumoa hasten den adinei erreparatuko zaie bereziki eta Euskadin ohikoenak diren mendekotasunak kontuan hartuko dira, besteak beste, alkohola eta tabakoa, baita kanabisaren deribatuak ere.

Osasunerako heziketak, bere edukien artean, portaerazko mendekotasunak (gizarte-sareen, teknologia digitalen, telefono mugikorren eta bideo-jokoen erabilera) integratu behar ditu. Horiek guztiak jada aipatuak daude, baina, aldi berean, honako jokabideak sartu beharko liriteke: erosketa eta elikadura konpulsiboa edo gehiegizko ariketa fisikoa ala lan-jarduera.

Bestetik, proposatutako legezko testuak lehentasunezko prebentziozko jarduera-eremutat jotzen ditu familia, komunitatea eta hezkuntza. Gure iritziz hiru eremu horiei lanaren arloa erantsi behar zaio<sup>1</sup>.

Mendekotasunak pertsonaren osasuna kaltetzearekin zuzeneko harremana du eta, ondorioz, harreman pertsonaletan eta, bide batez, lan-harremanetan eragiten du: lan-errendimendua galtzea, nekea, lan-istripuaren arriskua eta ezbeharrak (norberari edo hirugarrenei), bajak, etab. Zeharka gainerako langileen lanean eragiten du.

Berritzailea eta progresista izateagatik, bikaina iruditzen zaigu testu guztian pertsona kontsumitzailearekiko jarrera positiboa mantentzea eta arazoa alderdi askotatik lantzea. Helburua mendekotasuna duen pertsona osasunean, lanean, gizartearen, iraupen-bitartekoetan... sartzea da, estigmatizatu eta errudun bihurtu gabe. Gainera, epe ertain/luzean kaltetuak daudenen laguntza-emaizak bilatzen ditu.

Gure ustez egokia eta berritzailea da etorkizuneko lege hau eskea eta eskaintza murrizteko oinarritzko printzipioetarantz, mendekotasunei eta ondorio larriei buruz herritarrek behar duten ezagutza hobetzerantz (prestakuntza eta informazioa) eta herri-administrazio desberdinen arteko koordinaziorantz bideratua egotea.

<sup>1</sup> Izan ere, lehentasunezkoztat jo da hainbat lurralde-eremutan (adibide bat aipatzearen, Gizarte Ongizate eta Berdintasunerako Sailak Andaluzian droga-mendekotasunetan eta bestelako mendekotasunetan esku hartzeko funtsezko prebentzio-arlo bezala zehazten ditu eskola, familia, komunitatea eta lana).

### **Aurrekontu-hornidurari buruz**

Oso-osorik ezarri eta garatzeko desiragarria litzateke nahikoa aurrekontu-hornidura xedatzea. Halaber, mekanismoek egokiak izan beharko lukete behar bezalako jarraipena, gardentasuna eta gizarte-partaidetza izateko.

### **IV.2 Gogoeta bereziak**

#### **Zioen azalpena**

8. orrialdean honakoak gehitu eta kentzea gomendatzen da:

“Mendekotasunen arrazoiak oso konplexuak eta anitzak dira, ahulezia pertsonalaren faktoreei beste gizarte-faktore batzuk erantsi behar baitzaizkie. Horiek eragin handiagoa dute gatazken edo krisiaren garaietan. Hain zuzen ere, pertsonaren alderdi biologikoak, psikologikoak, familiarak, sozialak, **lanekoak** eta ekonomikoak, arrisku-faktoreak bultzatuta, bizi-prozesuetan nahasiak daude, hau da, elkarren artean eragiten duten pertsonaren barruko eta kanpoko egoera eta ezaugarriengatik sinergiak daude eta potentziala biderkatu nahiz ahulezia eta kontsumo eta portaera arduragabeen aukerak gehitzen dituzte. Hala, behar bezala ez dira garatzen eta mendekotasuna sortzen dute...”

Eta hori lanaren alderdia oso garrantzitsua baita, beraz, sartu behar da.

#### **1. artikulua. Legearen xedea eta aplikazio-eremua**

2. atalean hurrengoaren eranstea gomendatzen da:

“Era berean, substantziak kontsumitzeagatik edo portaerazko mendekotasunak izateagatik hirugarren pertsonak kalteetatik babesteko jarduerak arautzea aurrez ikusten da. **Bereziki talde ahulak (haurrak eta nerabeak) kontuan hartuko dira**”.

Hau eranstea justifikatzen dugu, bi taldeak oso ahulak baitira eta herri-agintariek legez babestea eskatu behar baitute.

#### **2. artikulua. Eremu materiala**

• 3. atalean honakoa eranstea gomendatzen da:

“Lege honek xedatzen duenerako, substantziarik gabeko mendekotasunak edo portaerazko mendekotasunak gehiegizko jokabide bezala definitzen dira. Nolanahi ere, substantzia psikoaktiboak kontsumitu gabe, pertsonarentzat eta bere familia-, gizarte- eta **lan**-ingurune zuzenerako jarraibide kaltegarriak ezin erreprimitu gabe errepikatzen dira behin eta berriz; saiatu arren, ezin baititzake kontrola eta jokabidea mantentzen duelako, nahiz eta kaltegarria izan”.

Portaerazko mendekotasunak pertsonaren lan-ingurunean izan ditzakeen ondorio larriei buruzko hausnarketa egin behar da. Horregatik sartu behar da.

• 5. atala eranstea ere gomendatzen da:

**“5. Mendekotasunak dituzten pertsonak opiazeoekin tratatzeari dagokionez, araudi bereziak xedatutakoari erreparatuko zaio”.**

Eranskin honek metadonarekin ohitura galtzearen tratamenduak aipatzen ditu; droga-mendekotasunak dituzte pertsonentzat dira, opiazeoekiko mendekotasuna badute. 75/1990 Errege Dekretuak, urtarilaren

19koak, mendekotasunak dituzten pertsonak opiazeoekin tratatzea arautzen duenak, eta 122/90 Dekretuak, maiatzaren 2koak, mendekotasunak dituzten pertsonak opiazeoekin tratatzeko batzorde aholkularia eratzten duenak, definitzen dituzte. Hau eranstea ezinbestekoa da nahasteak saihesteko<sup>2</sup>.

### **3. artikulua. Printzipio gidariak**

Atal berria eranstea gomendatzen da:

**“k) Haurrak eta nerabeak bereziki kontuan hartzea eta, ondorioz, esku-hartze bereziak egitea, nagusiki, hezkuntzaren eta familiaren eremuetan”.**

Bi taldeak ahulak izatean oinarritzen da. Gainera, berezkoak dituzten eremuetan esku-hartze bereziak gauzatu behar dira.

### **4. artikulua. Mendekotasunekiko arreta- eta prebentzio-ereduaren oinarritzko funtsak**

Atal berria eranstea gomendatzen dugu:

**“e) Osasunerako heziketa hezkuntzaren eremu guztietan haurren eta nerabeen artean ohitura osasuntsuak sustatzeko”.**

Gure iritziz hezkuntzaren eremuan ohitura osasuntsuak bereziki garatu behar dira eta modu horretan justifikatzen dugu eranstea.

### **6. artikulua. Definizioak**

“Portaerazko mendekotasunak” definitzea gomendatzen dugu.

### **7. artikulua. Helburu orokorrak**

Printzipio berria eranstea gomendatzen dugu:

**“j) Hezkuntza-inguruneak bizi-ohitura osasuntsuak sendotzeko, hezkuntza-komunitatea eta, nagusiki, maisu-maistrak eta irakasleak, gaitu eta agintea ematea”.**

Adin txikikoak ahulagoak direnez, hezkuntzaren eremuan ohitura osasuntsuei buruzko garapen berezia behar da eta horretan oinarritzen da hau eranstea. Hori guztia proiektuaren 9. artikuluari dagokio.

### **13. artikulua. Mendekotasunak prebenitzea**

6. atalean ondokoa eranstea proposatzen dugu:

**“Lehentasunezko prebentziozko jarduera-eremuak familia, komunitatea, hezkuntza eta lana izango dira. Elkar eta gizarte-eragileekin, batez ere komunitarioekin, koordinatu beharko dute aplikatu beharreko neurriak egiaz eraginkorrak izateko”.**

Enpresa, lan-eremuaren antolatzailea eta bizikidetasun-tokia den neurrian, arloan prebentziozko politikak eta jarduerak garatzeko toki erabilgarria izan daiteke.

<sup>2</sup> 2013. urtean OMEk, otsaileko buletinean, metadonaren programak ezartzeari esker, estatuko heroinomanoen artean GIBrengatik infekzioak 90. hamarkadaren hasieran urtean 6.200 izatetik 2010. urtean 690 izatera pasa zirela azaldu zuen. Aipatu tratamendua doan eskaintzen zaio opiazeoekiko mendekotasuna duela diagnostikatzen zaion pertsona orori eta, ondorioz, GIB eta hepatitis a murrizten dira.



Zeharkakotasun komunitarioan nahitaezko osagarri bezala, informazio- eta prestakuntza-kanpaina unibertsalak egiteko egokia da.

### **19. artikulua. Lan-ingurunean prebenitzea**

2. atala 1.a eta 1.a 2.a izatea proposatzen dugu eta, gainera, testua zehaztu behar da, hurrengo moduan gelditzeko:

1. Lanaren arloan Eusko Jaurilaritzako sail aginpideduna, ....z arduratzen den Eusko Jaurilaritzako organoaren bitartez.
2. Mendekotasunen ~~lan-eremuan~~ prebentziozko ekintzak, **enpresa- eta sindikatu-erakundeen artean hitzartu ondoren lan-eremuan sustatzea erabakitzen direnak**, hurrengoetara bideratuko dira:

...

Aldaketa hau justifikatzen da, espirituak honakoa izan behar baitu: aldean (enpresa- eta sindikatu-erakundeak) arteko hitzarmenaren bitartez lan-eremuan mendekotasunak prebenitzea. Beste hitzetan esanda, prebentziozko ekintzak lankidetzara publiko-privatuaren ikuspegitik garatu behar dira, mendekotasunak prebenitzera bideratutako ekimenak sustatzeko.

Lan Arriskuak Prebenitzeko Legearen ikustegitik eta hori betez, derrigorrezko betetzeko ekintza bereziak daude. Gure ustez, argi eta garbi gelditu behar du ekintzen prebentzioa sustatzera bideratutako ekintza eta neurriak horiek baztertu gabe gauzatuko direla.

### **32. artikulua. Edari alkoholikoen hornidura eta salmenta.**

Honakoak erantsiz eta aldatuz, 4. atala aldatzea proposatzen dugu:

“4. Ondorengoetan ezingo dira edari alkoholikoak saldu, ezta horietaz hornitu ere:

- a) Eskaintzen dituzten jarduera eta zerbitzuengatik, lehenasunez adin txikikoentzat diren lokal eta zentroetan.
- b) **Ikastetxeetan.**
- c) **Herri-administrazioaren bulegoetan.**
- d) Kirol-instalazioetako, zentro sanitario eta soziosanitarioetako eta gizarte-zerbitzu etako establezimendu, taberna eta kafetegietan.
- e) **Olgeta-espazioetan, besteak beste, parke tematikoetan eta ezagutza zabaldu nahiz astialdirako bestelakoetan.**
- f) Herri-bidean, terraza, aulkiak eta mahaiaik edo jarduerak eta ekitaldiak daudenetan izan ezik, udalak berariaz baimendu baditu.

Ikasleen adina baztertuta, gure iritziz, ikastetxeetan, herri-administrazioaren bulegoetan, parke tematikoetan edo ezagutza zabaltzeko zentroetan ezin daitezke edari alkoholikoak sal, ezta banatu ere, instalazio horiek eredu izan behar baitute.

### **75. artikulua. Mendekotasunei buruzko Euskal Kontseilua**

- e) atalean “enpresa-erakundeen” ordez “sektoreen arteko enpresa-erakundeak, Euskal Autonomia Erkidegoan esangarriak direnak, araudi aplikagarriaren arabera erakundearen ikuspegitik enpresaburuak ordezkatzeko dituztenak” jartzea gomendatzen da.

Era berean, sindikatu- eta enpresa-erakundeen artean ordezkaritza paritarioa bete beharko litzateke. Oreka hori aurreproiektuan ez da aurrez ikusten, sindikatu-erakundeei enpresa-erakundeei baino kide gehiago atxikitzen baitzaizkie.

- f) atalean honakoa deuseztatzea gomendatzen da:

f) Sindikatu-erakunde eta -konfederazio bakoitzak izendatu ostean, kide bana honakoak betetzen badituzte: esangarriak izatea, langileen ordezkarien %10 edo hortik gora lortu izana eta enpresa-batzordearen nahiz herri-administrazioen organoen barruan egotea Euskal Autonomia Erkidegoan.

### **78. artikulua. Pertsona eta erakunde pribatuak**

1. atalak hala dio:

“Pertsona eta erakunde pribatuek mendekotasunen arloan hurrengoetan lankidetzan jardun dezakete: osasuna sustatzea, prebentzioa, laguntza, gizarteratzea, informazioa, prestakuntza eta ikerketa”.

Pertsonetik aipamena zehaztugabea da. Ez da adierazten edozein herritar edo izen handiko pertsonaren bat izan al daitekeen. Halaber, partaidetza eta kooperazioa nola bideratuko diren ez da adierazten. Beste artikuluko batean proposatutako legezko testuak boluntarioak aipatzen ditu. Bertan hobe kokatzen dira herritarrak, beraz, adituetara mugatzea proposatzen dugu.

### **80. artikulua. Hitzarmenak sinatu eta diru-laguntzak emateko lankidetzak baldintzak**

- a) atalean hurrengoaren eranstea gomendatzen dugu:

“a) Prebentzioa familiaren, komunitatearen, hezkuntzaren eta lanaren eremuetan”.

Azkenik, zenbait estilo- eta ortografia-zuzenketa aipatu nahi genituzke:

- 8. orrialdea, 4. paragrafoa: “psikotropoak” dioenean “psikotropikoak” jarri beharko da.
- “Mendekotasunen eremuan osasuna sustatzea” 10. artikuluan idazkera arazoak daude (ez dira garrantzitsuak) hasieran eta c) atalean.
  1. Hasiera: hala dio "las adicciones, tanto las a sustancias" eta honakoa jarri behar da: "tanto a las sustancias".
  2. c) atala: hala dio "a la modificación de las condiciones socioeconómicas, ambientales" eta honakoa jarri behar da: "a la modificación de las condiciones socioeconómicas y ambientales".
- 19. eta 20. artikulua: “sindikatuak” ordez “sindikatu-erakundeak” jarri behar da.
- 21. artikuluan azkeneko lerroan azken paragrafoaren idazkera berraztertu behar da.
- 55. artikuluko e) atalean “isa persona” jarri ordez “misma persona” idatzi beharko litzateke.
- 66. artikuluko 3. atalean “órgano en cargado” dago eta “órgano encargado” agertu beharko luke.
- 75. artikuluan sexua berraztertu behar da atal guztietan “una o uno” koherentzia mantenduz.
- Artikulu batzuetan hitz errepikatuak daude.


## V.- ONDORIOAK

Euskadiko EGABren iritziz mendekotasunari buruzko lege-aurreproiektua izapidetzea egokia da, kontsulta-organo honek egin dituen gogoetekin.

Bilbon, 2014ko urriaren 3an



O.E. Presidentea  
Juan María Otaegui Murua



Idazkari nagusia  
Francisco José Huidobro Burgos